

MARKINA-XEMEINGO UDALEKO FUNTZIONARIOEN PLANTILLAN HUTSIK DAUDEN HAINBAT PLAZA BARNE SUSTAPEN BIDEZ BETETZEKO BERARIAZKO OINARRIAK ETA DEIALDIA

Tokiko Gobernu-Batzarrak 2018ko urriaren 4ko bileran Markina-Xemeingo Udaleko funtzionarioen plantillan hutsik dauden hainbat plaza barne sustapen bidez betetzeko deialdiaren berariazko oinarriak eta deialdia onartu zituen.

BERARIAZKO OINARRIAK

Markina-Xemeingo Udalak Herritarren Arreta Zerbitzua (HAZ) sortzea onartu zuen 2018ko maiatzaren 24ko ohiko Osoko Bilkuran eta Udaleko Lanpostuen Zerrenda aldatzea onartu zuen 2018ko uztailaren 5eko ohiko Osoko Bilkuran.

Lanpostuen Zerrendan hainbat behar-postu daude C1 sailkapen-taldean.

Kudeaketa-tresna berriak ezarri ondoren, modernizazioak ekarri duen teknifikazioaren aurrean eta Herritarren Arreta Zerbitzua (HAZ) ezartzearen ondorioz, helburua lanpostuen plantilla doitzea da; betiere, udaleko giza baliabideen ezagutza eta kualifikazioa aprobetxatuta.

Aplikazio informatikoak sartu direnetik eman ondorioak Herri Administrazioetan garbiak izan dira eta aldaketa ekarri du beharra egiteko moduan. Izan ere, teknikariek, administrariak eta administrari laguntzaileak betetzen dituzten zereginak hobeto definitu dira, eta azken bi horien arteko aldeak gutxitu egin dira.

Zereginen banaketa berriak administrarien eta administrari laguntzaileen beharretan zeuden aldeak desagertzea ekarri du eta ondorioz orokortu egin da beharginen gaitasuna juridikoki administrazioko kidegoari dagozkion funtzio modura definitutakoak.

Beste alde batetik, 30/1984 Legearen 22. xedapen gehigarriak eta Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 16. xedapen gehigarriak aukera ematen dute barne sustapeneko deialdiak egin eta oposaketa-lehiaketa sistema jarraituz dagozkion jarduera edo funtzio arloko C2 taldeko eskala eta azpieskaletatik C1 taldera pasatzeko.

Horregatik, deialdi hau barne-sustapen murriztu bidez egingo da lehendik zeuden administrari laguntzaile plazak birsailkatu ondoren plantillan sortutako beste hainbeste administrari plaza betetzeko.

Beraz, birsailkatu diren eta iraungitzeko dauden Administrari Orokorreko administrari laguntzaile (C2 taldea) titularrak baino ezingo dute lehiatu.

Ondorioz, lehiaketa-oposaketarako deialdia egingo da Markina-Xemeingo Udaleko hiru (3) administrari plaza barne sustapen murriztu bidez betetzeko, oinarri arautzaileak hauek izanik:

Lehena. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea Markina-Xemeingo Udaleko hiru (3) administrari plaza barne-sustapen murriztu bidez betetzea da, sistema lehiaketa-oposaketa izanik.

Administrari plazak Administrazio Orokorreko Eskalan, Azpieskala Administratiboan sartuta daude, C1 sailkapen taldean eta Markina-Xemeingo Udaleko funtzionarioen plantilla unitarioan.

Administrari lanpostuetako zereginak langileen birbanaketa memorian eta 2018ko uztailaren 5eko ohiko osoko bileran onartu diren Lanpostuen Zerrendaren aldaketetan zehaztutakoak dira.

Bigarrena. Lanpostuen berezitasunak

Plazak: Administrazio Orokorreko Eskala, Azpieskala Administratiboa, sailkapen-taldea C1.

Lanpostuak:

Administraria.

Dotazioa: 3. Hizkuntza-eskakizuna: 3 (derrigortasun-data beteta). Lanpostu-mailako osagarria: 17. Berariazko Osagarria: 21.633,09€ urtean.

Hirugarrena. Hautagaien baldintzak

Onartua izateko eta, hala badagokio, oposaketa-lehiaketan parte hartu ahal izateko, hautagaien ondorengo baldintzak bete behar izango dituzte eskariak aurkezteko azken egunean:

- a) Karrerako funtzionario izatea, Markina-Xemeingo Udalaren zerbitzura egotea eta birsailkatu diren eta iraungitzeko dauden Administrazio Orokorreko Eskalako Laguntzaileen Azpieskalako C2 taldeko administrari laguntzaile plaza baten jabe izatea.
- b) Jarduneko zerbitzuan izatea eta karrerako funtzionario bezala bi urte beteta izatea Administrazio Orokorreko eskalan, Laguntzaileen Azpieskalan (administrari laguntzaileen kasuan), C2 Sailkapen-taldean.
- c) Goi-mailako Batxilergoa, Bigarren Mailako Lanbide Heziketa edo indarrean dagoen legediak horien baliokidetzat jotzen duen beste edozein titulu edukitzea.

Aipatutako titulaziorik eduki ezean, lehiaketa-oposaketan ere parte hartu ahal izango dute honako egoeretakoa bat egiaztatzen dutenek:

- C2 sailkapen-taldean 10 urteko antzintasuna aitortu.
 - C2 sailkapen-taldean 5 urteko antzintasuna aitortu eta prestakuntza-ikastaro espezifiko bat gaingitu.
- d) Diziplina-espediente bidez zerbitzutik baztertuta ez egotea Herri-Administrazioetako bakar batean ere ez, ez eta desgaituta egotea funtzio publikoan jarduteko.
 - e) Bateriaezintasun edo ezgaitasun auzi legalen batean sartuta ez egotea Herri Administrazioen zerbitzuan dagoen pertsonalaren bateraezintasuna arautzen duen abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitakoaren arabera.

Laugarrena. Eskabide-orriak aurkeztea

Eskaera egiteko I. eranskinean sartu den eredu ofizial eta normalizatua erabiliko da.

Eskabide-orrian hautagaiak hirugarren oinarrian eskatutako baldintza guztiak betetzen dituela adieraziko du, beti ere eskabide-orriak aurkezteko epea amaitzen den eguna erreferentziatzen hartuta, eta zortzigarren oinarrian zehaztutako merezimenduak aipatuko ditu.

Horretarako, baloratzeko aurkeztuko diren merezimenduak zehaztu eta egiaztagiria aurkeztuko ditu.

Antzintasuna Markina-Xemeingo Udalean Idazkaritza Sailak egiaztatuko du.

Eskabide-orriak Markina-Xemeingo Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira deialdi honen iragarkia argitaratzen den egunaren biharamunean zenbatzen hasita hurrengo 20 egun baliodunen barruan.

Bosgarrena.- Izaera pertsonaleko datuak

Datu pertsonalen tratamendua egingo da Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak eta 2018ko apirilaren 27an onartutako Europar Batasuneko Datuen Babeserako 216/679 Erregelamendu Orokorrak xedatzen dutena jarraituta.

Seigarrena.- Hautagaiak onartzea

Eskabide-orriak aurkezteko epea amaituta, alkate-udalburuak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartuko du. Zerrenda Markina-Xemeingo Udalaren web orrian, www.markina-xemein.eus, argitaratuko da epaimahaia osatuko duten kideekin batera.

Behin-behineko zerrenda behin betiko onartuta geratuko da erreklamaziorik ez badago. Erreklamaziorik balego, behin betiko zerrenda onartuko duen ebazpen barri baten bidez onartu edo atzera botako da eta esan den moduan jendaurrean jarriko da.

Zazpigarrena.- Kalifikazio-epaimahaia

Lehiaketa-oposaketaren kalifikazio-epaimahaia honela osatuko da:

Mahaiburua:

- Markina-Xemeingo Udaleko idazkaria edo ordezkaturiko duen funtzionarioa.

Kideak:

- Markina-Xemeingo Udaleko C1 administrazioko eskalako karrerako funtzionario bat.
- Markina-Xemeingo Udaleko funtzionario bat.
- Funtzionario bat langileen ordezkariak proposatuta.

Idazkaria:

- Markina-Xemeingo Udaleko karrerako funtzionario bat.

Zortzigarrena.- Lehiaketa-oposaketaren faseak

Lehiaketa-oposaketak bi fase izango ditu:

A) Oposizio-fasea:

Hautagaiak “HERRITARREN ARRETA. KOMUNIKAZIO ERLAZIONALAREN GARAPENA” izeneko ikastaroa egin beharko dute. Bertan ahozko edo idatzizko komunikazioaren oinarriak landuko dira, bai herritarrari arreta ematerakoan, bai beharreen sortzen den pertsonen arteko harreman mailan. Ikastaroa derrigorrean egin beharko da eta prozeduratik kanpo geratuko da %80ko gutxieneko asistentzia egiaztatzen ez duen hautagaia eta ikastaroa gainditzen ez duena, kalifikazioa GAI/EZ GAI izanik.

B) Merezimenduen kalifikazioa:

Epaimahaiak jarraian zehazten diren merezimenduak baloratuko ditu eskabide-orriak aurkezteko epearen barruan zehaztu eta behar moduan egiaztatu badira. Prozesua gainditzeko gutxienez 20 puntu lortu behar dira.

1.- Antzintasuna:

Herri Administrazioan egindako beharra baloratuko da, C2 taldean 0,30 puntu hileko. Hilabetera heltzen ez diren aldiak hainbanatuko dira 30 eguneko hilabetea osotu arte.

2.- Prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak:

Administrazioko azpieskalako zereginekin lotutako gaiekin lotutakoak izango dira administrari laguntzaile plazen kasuan. Gehienez, 6 puntu emango dira:

- 10 eta 19 ordu bitarteko ikastaro bakoitzeko: 0,20 puntu.
- 20 eta 49 ordu bitarteko ikastaro bakoitzeko: 0,40 puntu.
- 50 eta 99 ordu bitarteko ikastaro bakoitzeko: 0,80 puntu.
- 100 ordutik gorako ikastaro bakoitzeko: 1,00 puntu.

Bederatzigarrena.- Epaimahaiaren proposamena

Hautagaiak lortuko duen azken kalifikazioa prozesuan lortutako puntu guztien batuketa izango da eta behin betiko puntuazioak ordena ezarriko du.

Epaimahaiak ezingo du inondik inora ere onartu ez eta aitortu deialdia gainditu dutenak deitutako plaza baino hautagai gehiago izan direla. Ezarritakoa hausten duen onartutakoen edozein proposamen zuzenbide osoz deusez izango da.

Merezimenduen balorazioa egindakoan, epaimahaiak hautagaien azken puntuaketa argitaratuko du iragarki-oholean eta Udalaren web orrian.

Hautagaiek 10 egun izango dituzte epaimahaiari erreklamazioak aurkezteko. Epe hau igarotakoan, epaimahaiak alkateari izendapenen behin betiko proposamena egingo dio eta lanpostu bakoitzari behin betiko atxikipena egitea eskatuko dio.

Hamargarrena.- Dokumentazioa aurkeztea

20 egun izango ditu proposatutako hautagaiak honako agiri hauek aurkezteko:

- Zinpeko aitortpena edo promesa hirugarren oinarriaren d) atalean zehaztutako egoeretako batean edo Herri Administrazioen zerbitzura dagoen pertsonalak bateraezintasunekin legezko kausarik ez duela esango duena, lanpostua jabetzan hartu aurretik aipatutako legeak ematen duen aukeraren kaltetan gabe.
- Hirugarren oinarrian jasotako titulazio akademikoaren egiaztatutako fotokopia.

Titulazioa egiaztatzen duen agiria eskatuko zaio dagokion espediente pertsonalean falta bada edo bertan dauden datuak osorik ez badaude edo eguneratu barik badaude.

Proposatutako hautagaiak, eta ezinbesteko kasua ez bada, emandako epearen barruan eskatutako agiriak aurkeztuko ez balitu, edo agiriak aztertu ondoren eskatutako baldintzaren bat ez duela betetzen ondorioztatzen bada, ezingo da administrari izendatu eta egindako aktuzio guztiak

bertan behera utziko dira, faltsukerian erortzeagatik izan dezaken erantzukizunaren kaltetan gabe.

Hamaikagarrena. Behin betiko izendapena eta lanpostua jabetzan hartzea

Alkate-udalburuak epaimahaiaren proposamenez oposizio-lehiaketa gainditzen duen hautagaia Markina-Xemeingo Udaleko administrari izendatuko du.

Izendapena egin ondoren karrerako funtzionarioek lanpostua jabetzan hartuko dute izendapena argitaratu eta hurrengo 10 egunen barruan. Alkate-udalburuak epea beste 10 egunez luza dezake, erabakia justifikatzen duen arrazoirik badago.

Zehaztutako epea igarota interesduna lanpostua jabetzan hartzeko udaletxean agertzen ez bada eskubide guztiak galdu egingo ditu eta bertan behera geratuko da birsailkatutako taldean izendapena egitea.

Hamabigarrena.- Gora-beherak

Epaimahaiak ahalmena izango du oinarri hauetan aurreikusi ez diren gaiekin lotuta agertzen diren zalantzak ebazteko eta deialdia behar moduan gara dadin behar diren erabakiak hartzeko.

Hamahirugarrena.- Aurkaratzeak

Deialdi honen eta bere oinarrien kontra berraztertze errekurtsoa tarteka dezakete interesdunek, zuzenean, hilabeteko epean edo bi hilabetearen argitalpenaren egunaren biharamunetik hasita administrazioarekiko auzi-errekurtsoa eskumena duen Administrazioarekiko Auzien Epaitegian administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen Legearen 14. artikulua xedatzen duena jarraituta.

Bestalde, deialdi honetatik eratorritako egintzen aurka egin dezakete interesdunen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen araudiak aurreikusten dituen eretatik edozeinetan.

Markina-Xemeinen, 2018ko urriaren 8an.

Alkatea
Juan Jose Txurruka Txurruka

I. ERANSKINA

ESKAERA ORRIA

Deialdia	Markina-Xemeingo Udaleko hiru administrari plaza barne sustapen murriztu bidez betetzekoa
----------	--

1. DATU PERTSONALAK

1. abizena	2. abizena	Izena
NA	Harremanetarako telefonoa/k	Jaioteguna
Helbidea	Herria	Posta kodea
Probintzia	E-maila	

Onartua izateko eta, hala badagokio, oposaketa-lehiaketan parte hartu ahal izateko, honako baldintzak betetzen ditudala adierazi eta egiaztatzen dut:

BALDINTZAK

- Karrerako funtzionario naiz Markina-Xemeingo Udalean eta birsailkatu diren eta iraungitzeko dauden Administrazio Orokorreko Eskalako Laguntzaileen Azpieskalako C2 taldeko administrari laguntzaile plaza baten jabe naiz.
- Jarduneko zerbitzuan izatea eta karrerako funtzionario bezala bi urte beteta izatea Administrazio Orokorreko eskalan, Laguntzaileen Azpieskalan (administrari laguntzaileen kasuan), C2 Sailkapen-taldean.
- Goi-mailako Batxilergoa, Bigarren Mailako Lanbide Heziketa edo indarrean dagoen legediak horien baliokidetzat jotzen duen tituluaren jabe naiz, edo
- C2 sailkapen-taldean 10 urteko antzintasuna aitortua dut.
- C2 sailkapen-taldean 5 urteko antzintasuna aitortua dut eta prestakuntza-ikastaro espezifiko bat gainditu dut.
- Ez nago diziplina-espediente bidez zerbitzutik baztertuta Herri-Administrazioetako bakar batean ere ez, ez eta desgaituta ere funtzio publikoan jarduteko.
- Ez nago sartuta inongo bateraezintasun edo ezgaitasun auzi legeletan Herri Administrazioen zerbitzuan dagoen pertsonalaren bateraezintasuna arautzen duen abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitakoaren arabera.

Honako merezimenduak ere aurkezten ditut, epaimahaiak aintzat hartu eta baloratu diezazkidan:

MEREZIMENDUAK:

1.- Antzintasuna: Herri administrazioan C2 taldean egindako beharra:

Herri Administrazioa	C2 taldean noiztik	C2 taldean noiz arte	Hilabete kopurua	Puntuak (0,30 hileko)

2.- Prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak: Administrazioiko azpieskalako zereginen arloko gaiekin lotutakoak:

Ikastaroaren izena	Non eginga / nork emana	Ordu kopurua	puntuak

ESKAERA HONEKIN BATERA DOAZEN AGIRIAK

- * Naren fotokopia
- * Deialdiaren parte hartzeko eskatutako baldintzak betetzen ditudalako agiriak.
- * Hizkuntz eskakizunaren egiaztagiriaren fotokopia (edo baliakide den tituluarena)
- * Eskabide-orrian adierazitako merezimenduak egiaztatzeko agirien fotokopiak.

Behean sinatzen duenak, eskaera hau dagokion aukeratzeko probatan onartua izatea **ESKATZEN DU**, eta bertan azaltzen diren datuak egiazkoak direla eta Oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen dituela **BAIEZTATZEN DU**, eskatutakoan agiri original bidez zurituko dituela hitz ematen duelarik.

MARKINA-XEMEINen, bi mila eta hemezortziko urriaren hamarrean.

Izpta. _____

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Legeak eta Titularitate Publikoko Datu Pertsonalen Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Agentziaren Sorrerari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legeak xedatutakoa betez, jakitera ematen dizugu zure datuak fitxategi batean sartuko direla, herritarrekin ditugun harremanak kudeatzeko helburuarekin. Fitxategi horren arduraduna Markina-Xemeingo Udala da, honako helbidea duena: Goiko Portala 3 – 48270 Markina-Xemein (Bizkaia). Berarengana jo ahalko duzu, datuak ikusi, zuzendu, ezabatu eta horiei aurka egiteko eskubideak erabili nahi badituzu. Horretarako, eskari bat aurkeztu beharko duzu adierazitako helbidean, NArean edo agiri identifikatzaile baliokidearen kopia bat erantsita.